

## MAILEGUZKO HITZEI BURUZKO II. JARDUNALDIEN KRONIKATXOA

*Donostia, 1983, Azaroak 25*

*Fr. Luis Villasante  
Euskaltzainburua*

Jaun-Andreak:

Dakizutenez, aurtengo Urtarrilean, eta Uztaritzen, egin ziren gai honetaz Lehen Jardunaldiak. Oraingo hauek haien segida eta bukaera izan dira. Hartako batzordeñoak alde aurretik jarri zuen programa, denbora faltaz, orduan ez zen dena osorik inguratu. Horregatik, aztertu gabe zegoen zatia ikusteko, eta denari gain-begiratu orokor bat emateko, jarri dira II. Jardunaldiok lehengo toki berean. Hogei eta bosten bat lagun bildu dira. Euskaltzain osoak 11: Hegoaldetik 6, Iparraldetik 5.

### Urriak 28

*Euskaltzainburuak* hiru txosten labur irakurtzen ditu bana-banaka eta bakoitzaren ondoan eztabaida egiten da. Lehenbizikoa “V” letrari buruz: ea kultur mailegu berrietan “V” letra mantendu behar ote den. Txostengilea mantentzearen alde agertzen da. Elkar hizketa bizia sortzen da. Gehienen aburua ezezkoaren alde dago. Euskaldunen artean dogma bezalako bat sartu da: euskaraz “V”rik ez dela behar, eta horren kontra ez dago ezer egiterik. Beraz, atzerriko izen propio batzuetan izan ezik, badirudi hobe izango dela “V”rik ez erabiltzea. Bigarren txostena: ea ortografi etimologista erradikala euskarak gorde behar ote duen, frantsesak, alemanak eta ingelesak egiten duten bezala. Gai hau Urtarrileko Jardunaldietan ere tratatu zen pixka bat zeharka, eta orain berariaz. Gehienek, edo hobeki esan, denek, aho batez, ezezkoaren alde daude. Hirugarren txostena: kultur mailegu berrietan “H” onartu behar ote den. Txostengileak proposatzen zuen hitz-hasieratakoak eta bokalen artekoak gordetzea eta gainerako guztiak kentzea. Baina gehienen eritzia izan da “anhidrido”, “deshidratazio” eta holakoetan ere gorde behar dela.

Gero *Patxi Goenagak* irakurri zuen bere txostena: “B” eta “P”ren aitzinean “M” ala “N” idatzi behar ote den (kultur mailegu berrietan, noski). “N”ren aldeko aburua agertu zen gusasi.

Ondoren *Xabier Kintanak* eta *Jose Luis Lizundiak* txosten bana azaldu zuten irentsi gabeko Exonimoei buruz. Kintana jaunak dio Sainduen izenak, Historiako pertsonaienak, Estatu eta Nazioenak, itsasoena ab. euskaraz nola diren erabaki beharra dagoela. Batzarreak uste du beharrezkoen izenekin zerrenda bat egin behar dela, eta Kintanari agintzen zaio lana.

Azkenik, *L. M. Mujikak* azaltzen du bere txostena hitz barneko kontsonante multzoei buruz. Sail osoaren azalpena egiten du, kasu bakoitzean bere ustez hartu beharko litzatekeen bidea proposatuz: “KT”, “KZ”, “TS”, “SZ”, “BJ”, “BS”, “PT”, “E” edo “N”ren ondoan “D” ala “T” jarri behar den, eta abar. Eztabaida bizia eta luzea sortzen da.

Eta honekin bukatu zen lehenbiziko eguna.

## Urriak 29

Mujika jaunak alde egin behar izan duelako, Mikel Zalbidek hartzen du atzoko txostenaren eztabaidaren segida eta gidaritzza. Multzoak mantentzearen alde dago gehien eritzia. Baina aspaldiko maileguak direnean, beude beren aspaldiko itxuran: *dotrina, erretore, azio*. -Tate bukaera ere onartzen da: *Unibertsitate*, etab.

Ondoren *X. Kintanak* irakurtzen du txostena: “Beste zenbait hots lege zalan-zazko”. Ahoskatze problema batzuk ukitzen ditu. Gaur askok “Z” gaztelaniaz bezala ahoskatzen dutela eta hori salatu behar dela dio. Eskatzen du, baita ere, *yeismoz* kutsaturik daudenek bustidura egin gabe ahoska ditzatela hitzak: *mutila*, etab. “S” ala “Z”ren arazoa ere ukitzen du (politizatu, zozialisma); “F” eta “P”ren arazoa, hitzen bukaerako “DORE”/“TORE”, “DADE”/“TATE” etab.

Txostenen eztabaidatzea bukatu ondoan, aurreko Jardunaldien Akordio akta eta Azalpena irakurtzen dira, oharrak egiteko eta Jardunaldi hauen ondorio gisa Euskaltzaindiari zer eskatu behar zaion ikusteko. Irigoien jaunak dio Euskaltzaindiak bere esistentzia justifikatzeko duen bide bakarra normak ematea dela, eta hau lehen mailan ipini behar duela. Ibon Sarasolak dio lan egin behar dela, baina ongi eta behar den denbora hartuz. Lizundiak gaineratzen du gaur presa dagoela, eta nahi ez nahi, zerbait egin behar duela Euskaltzaindiak, zeren eta euskarak ofizialtasun maila baitu, eta bai Administrazio, bai Irakaskuntzatik etab. egunoro eskabide premiatsuak datozkio.

Mikel Zalbideri eskatzen zaio II. Jardunaldi hauen azalpen bat idazkiz egin dezan, lehenbizikoena egin duen bezala.

Iluntze aldean euskaltzain osoak bildu ziren eta zabalkunderako Adierazpen bat egin eta onartu zuten.